

2015eko apirila



Ongizate Estatuaren
ahultzea eta
Hirugarren Sektore
Sozialeko
erakundeen
eginkizuna

Jardunaldia

ANTOLATZAILEA:

 **Sareen sarea**
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako Sarea
Red del Tercer Sector Social de Euskadi

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



BIZKAIA ARETOA. BAROJA AUDITORIOA
ABANDOIBARRA ETORB., 3, BILBO
2015EKO APIRILAREN 27AN, 10:00ETATIK 13:30ERA

Lekua: Bilbo. Bizkaia Aretoko Baroja Aretoa.

Abandoibarra etorbidea, 3 48009 Bilbo

Eguna: Apirilaren 27a

Ordutegia: 10:00etatik 13:30era

Harremanetarako: Raúl Castillo. Tel.: 94.400.99.99

Izen-ematea e-mail honetan: promocion@3sbizkaia.org

(Datu hauek adierazi behar dira: izena, abizenak, erakundea eta harremanetarako datuak – telefonoa edo emaila-) (PLAZA KOPURU MUGATUA)

Halaber, gurekin Facebooken bidez kontakta dezakezu:

<http://www.facebook.com/3sbizkaia>

Sarrera

Ongizate estatuaren oraingo ahultze-koiuntura hainbat alorretatik deskribatu izan da, baina egoera gero eta nabariagoa eta gordinagoa da. Orokorrean, merkatuen behar eta arauak nagusitzeko joera (batez ere finantza-merkatuena) gero eta agerikoagoa da, pertsona eta kolektiboek laguntzeko eta babesteko sistemen aurrean, hau da, iragan mendearen erdialdean ongizate estatuak sortzera eraman zuten eta azken mendeotako aurrerapen sozial handienetako bat ekarri zuten sistemen aurrean.

Badira gainbehera horren gogortasuna kritikatzeko ari diren zenbait autore; gainera, “ondoeza estatu” berri baten sorrera gisa kontzeptualizatzen iritsi dira. Adibidez, horrela definitzen du Manuel Castellsek: *“Krisiaren testuinguruan bizitzen ari garena, bai Espainian eta bai munduan, Ongizate Estatutik Ondoeza Estatura daraman trantsizioa da [...].Murrerainoko aurrekontu-murrizketak prestazio sozialetan, zergen murrizketa masiboak aberatsenentzat eta enpresa handientzat, eta zergak mantentzea erdiko eta beheko sektoreentzat. Badirudi, nonbait, horrela aurrekontu-defizita jaisten dela (batez ere murrizketengatik) eta inbertsioa bultzatzen dela (zeren espero baita aberatsek inbertitu egingo dutela eskuetan duten dirua, azken 20 urteotako ebidentzia enpirikoak kontrakoa erakutsi arren)”*.

Murrizketetatik harago, politika horiek bestelako modu bat dira orain arte ongizate estatutzat hartu duguna ulertzeko, eta haien ondorioak bereziki gogorak izaten ari dira testuinguru hurbilenetan. Horrela egiaztatzen dute berriki argitaratu diren txosten batzuek, hala nola, [Espainiako bazterketa eta garapen sozialari buruzko VII. FOESSA txostenak](#), [Krisi ekonomikoak herrialde aberatsetako haur-ongizatean izandako inpaktuari buruzko txostenak](#), edo Oxfam Intermónen [“BERDINAK: ezabatu dezagun murrerako desberdintasuna”](#) izeneko txostenak, adibide batzuk jartzearen. Aurrean duguna errealitate berri bat da, eta ezin diogu errezeta zaharrez aurre egin.

Errealitate horren aurrean, Hirugarren Sektore Soziala oso koiuntura konplexua bizitzen ari da. Hasteko, kontuan hartuta zein zaila den egoera hau kudeatzea, Sektoreak zailtasun nabari bat aurkitzen du aurrez aurre, alegia, errealitateak sortzen dituen egoerak gero eta prekarioagoak eta konplexuagoak direla, baina, aldi berean, gero eta baliabide gutxiago dituela horri erantzuteko. Nolanahi ere, beharrak areagotzeaz gain, esku-hartze eta eraldaketa sozialaren espazioetan lan egiten duten eragileen mapan okupatzen duen lekua eta jokatzeko duen rola ere aldatzen ari dira.

Kudeaketari buruzko otsaileko txosten laburrean –[Ziklo aldaketa, aldaketen zikloa?, norabidea sagailoaren erdian ezarri](#)– aipatu genuen bezala, hainbat dira paradigma aldaketaz hitz egiten duten ahotsak. Nahiz eta Hirugarren Sektore Sozialak funtsezko rola jokatu duen ongizate sistemen eraikuntza, inplementazio eta garapenean, gaur egun aurrean aurkitzen dituen sistemek gero eta zalantza gehiago sortzen dituzte beren etorkizuneko iraunkortasunez, gero eta gehiago bideratzen dira logika merkantilizatuetara, eta enpresa-sektoreak gero eta irekiago du zerbitzuak betetzeko rola bereganatzeko atea.

Hala, gainbehera doan ongizate sistema aurkitzen dugu gure aurrean; askoren esanetan, gainera, ezinezkoa da haren oraingo dimentsioari eustea. Errealitate horren aurrean, hainbat proposamen egituratzen ari dira haren iraunkortasunari begira (pribatizazioak, koordainketak, Big Society,...). Aldi berean, baina, Hirugarren Sektore Soziala oso zentratuta dago koiuntura hurbilenean, eta oraindik ere beharrezkoa du jarduteko estrategia berri bat itxuratzea, bere garapena datozen urte edo hamarkadetan zimendatzeko.

Testuinguru horretan, haxe galdetu nahi diogu geure buruari.

Zein da Hirugarren Sektore Sozialak definitu behar duen rola, ongizate estatuaren gainbehera-egoera horren aurrean?

Espero dugu jardunaldian gogoeta, azterketa eta –batez ere- proposamenak agertzea, aurrez aurre dugun bidegurutze hori nolabait argitzeko.

Helburuak:

- Hirugarren Sektore Sozialaren rolari buruz hausnartzea, ongizate estatuaren ahultzearen aurrean.
- Esku-hartze sozialaren alorrean lan egiten duten pertsona eta erakundeak elkartzeko topagune bat eskaintzea.
- Erronkak eta proposamenak planteatzea, Hirugarren Sektore Sozialak koiuntura konkretu horretan kokatzeko eta jarduteko.

Metodologia- Dinamika

10:00 Ponentzia nagusia

JOSÉ MANUEL FRESNO

Zer rol definitu behar du gizarte ekintzako hirugarren sektoreak oraingo koiunturaren aurrean?

Kontua izango litzateke alderdi hauek biltzen dituen hausnarketa bat izatea: ongizate estatuak orokorrean, European, nazio mailan eta tokiko mailan orain bizi duen gainbehera-egoerari buruzko azterketa bat, gainbehera horren ustezko arrazoiak eta ondorioak, eta egoera horren aurrean ematen ari diren erantzunak. Azterketa hori egin ostean, saiaturko gara ikusten zer rol izan lezakeen hirugarren sektoreak koiuntura horren aurrean.

11:30. PABLO GONZALEZen Ponentzia, SAREEN SAREA Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Sarearen ordezkari gisa.

Zein da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundearen rola gizartearen erronka

berrien aurrean, eta bereziki ongizate sistemaren ahultzearen aurrean?

12:00 Atsedenaldia

12:20 Mahai-ingurua

Asmoa izango litzateke esperientzia konketuagoen panel bat lantzea, galdera honen inguruan: zer eragin izaten ari da egoera hori sektorearen jardura-eremuetan eta nola kokatzen ari dira erakundeak eta sareak koiuntura horren aurrean?

4 ikuspegi aurkeztuko genituzke: Desgaitasunak / Bazterketa soziala / Nazioarteko lankidetzak / adineko pertsonak.

Elkartean // EAPN Euskadi // Euskadiko GGKEen koordinakundea // Lares Euskadi.

13:30 Jardunaldiaren amaiera

Jardunaldia pertsona eta erakunde hauengana zuzentzen da

- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren alorreko erakundeak eta pertsonak.
- Ongizate estatuaren gainbeheraren aurrean kokatzeaz eta alternatibak sortzeaz interesatzen diren erakundeak eta pertsonak.

Parte-hartzea

Parte hartu nahi duten erakundeei eskatzen zaie etorriko diren pertsonen izenak berretsi ditzatela helbide elektroniko honetan promocion@3sbizkaia.org, edo telefono honetan: **94 400 33 55** (erreferentzia: Raúl Castillo Trigo).